

Nere asabak egin zutela  
gaur bizi geran supazter?  
Egia ote? Zingun ta zangun,  
loturikan sokil ta auster (3),  
ez al dakargu egoitz eder au  
denon kemen-lanez susper? (4)  
Ori gogotan, emen ez dabil  
iñor ere zuri-alper.

Nere emazte gazte bizkorra  
dugu eredu aurrenik,  
gero aurtxoak, ikasle zoli,  
ez ditugu iñoiz aitzurík!  
Ni nauzu, damuz! , aita ezaxo! ;  
baiña lanari emanik,  
ez nuke iñolaz egoitz txairo au  
lorrindu gura nasairik.

Guztiona da ezmezik gabe  
aterpe fiñ ta zuria:  
orratik beti deitzen diogu  
ozenki «Gure kabia».  
Bedi urteetan geure kabia,  
urteetan geure zoria:  
oillo-lur ontan bizi ostein  
baita bekigu obia.

Inguru-biran nolako siska! (5)  
Gutzizko joan-etorri;  
ez da gezurra, egía baizik,  
gizonak badu elorri! (6)

- 
- (3) Auts.  
(4) Bizi.  
(5) Naikeri.  
(6) Kezka.

Presaka beti, elkar bultzaka,  
leizak nunbait eratorri...  
Nork ote dio giltza emango  
euri-jasa goibel orri?

Beetikan dantzut burdin-jo xea,  
gabi-eresi nasia;  
maillu-lan otsa, su-atsal bero,  
giz-arnasaren saria;  
mendarte illetan tximini kea,  
lurraren sabel guria,  
eskeinka beti berea duen  
sabel barneko oparia.

Euskaldun lurra, gure asabak,  
taiuz emanik lanera,  
bidez zituzten zoztorrak goituz  
eraman zuten aurrera,  
Ola ta meatz, mendi ta soro,  
lur onetsi ta gupera!  
Eresi-lanez, oi euskal lurra,  
zaude beti egutera!

Gure lur, meatz kutsuz asea,  
Asiera-k bein  
izan kartsua eman ziona,  
gizonak ari-arian  
kondaira zear bere esku-lanez  
aldatu digu guztian:  
ola ta soro, esku ta tresna,  
oro darama bortxian.

Aspaldi danik gure asaben  
izerdiz ore egiña,  
odolez noizka busti oi dugu  
man-lor biurtu eziña;  
jaiotez zalu (7), tai (8) bako lanez  
erro biurka, jakiña! ,

---

(7) Bizkor.

(8) Eten gabe.

berton tinkoti oi gera denok,  
aritz tantaiaak bagiña.

Bein ta bein, baiña, etxe ondoan  
bekust arrasti argia,  
baratz-zale ta zillar dardaraz  
asperen bezain zolia:  
mendien l.ate azken gabean  
berdeaz naste gorria,  
zugatz-adar gaiñ, il agiñeko,  
tanta jario euzkia.

Oro da eder euskal errian,  
aran, troka ta itxasoa.  
Zuri gorrizka aldamenean  
neskatx eder lez soroa.  
Auxe dut nere bazter joria,  
auxe dut nere txokoa,  
nere asabai beiñola maitez  
Goikoak emandakoa.

Itz soilka gabe, egi zeatzez  
nai nuke bizi ementxe:  
lana denontzat, ogi kuskurra,  
maitasun gaia ta etxe.  
Zabal biotza bebil auzoan  
eguzki galda legetxe;  
nekerik iñoiz baletorkigu,  
betorke baita berantxe.

Nere barrua lasai dudala,  
lo egin nai dut gauero,  
eta kemenez berriz aserik  
lanera itzuli goizero.

Kezkarik gabe goiz eta arrasti  
lanari lotu ezkeru,  
diru-orratza goi-bidetzeak  
ez nau jarriko su-bero.

Zillar goseak asko darabiltz  
bizi maullan igo nairik;  
nik nene etxean ba dut aukera.  
ba dut upelka zillarrik;  
Jaunak ezarri esku artean  
onak dizkigu gogotik,  
osasuna ta lanaren griña,  
ba al dugu zillar oberik?

Oi gure egoitz, jatorri etxe,  
muño gaiñean etzana!  
Guztietatik zara bikaiñen,  
gure Loreder otzana!  
Orma zuri ta teillatu gorri,  
naia doakit zugana...  
Zaitetz betikoz magal beroa,  
gure kabitxo laztana!

